

ESPETXEEN EGOERA DATUETAN



1.- Gehiegizko okupazioa EAEko zentroetan: gaitasun operatibo maximoa baino ia % 40 preso gehiago eta gaitasun operatibo optimoa baino 2,5 aldiz gehiago.

Eusko Jaurlaritzak berak emandako datuen arabera, EAEko hiru espetxeen gaitasun optimo osoa 784 plazakoa da, eta gaitasun operatiboa, berriz, 1290 plazakoa (kopuru horietan, zentroetan gaua ematen duten pertsonak bakarrik sartzen dira, nahiz eta hirugarren graduko kondena betetzen duten gainerako pertsonak ere zentro edo zerbitzu zentral horietako langileen beharrezko arreta behar duten).

Barne-biztanleria erreala: Transferentzia egin zenean (2021eko urria), 1387 ziren presoak (778 Araban, 283 Bizkaian eta 326 Gipuzkoan), eta jada gaitasun operatiboa gainditu zen. 2025eko apirilean, berriz, 1.779 preso zeuden (930 Araban, 480 Bizkaian eta 369 Gipuzkoan). Gaitasun operatiboa baino ia %40 handiagoa eta ahalmen optimoa baino 2,5 aldiz handiagoa.

- Bizkaia: Egoera kritikoa eta diskriminatzailea: Bizkaiko zentroan 4 pertsona egon dira ziega bakoitzean. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralderik populatuenean dagoen zentro hori da edukiera txikienekoa. Horri emakumeek jasaten duten diskriminazioa gehitzen zaio, Bizkaiko espetxeak ezin baitu emakume presorik hartu, lekualdatzea behartuz eta euren inguruan birgizarteratzea oztopatuz.
- Araba: Erregimen itxiko modulu “fantasma” bat, Justizia Sailak onartzen ez duena: Begi-bistakoa da Arabako Zentroko erregimen itxiko modulua aspalditik dagoela martxan, eta Eusko Jaurlaritzak ukatu egiten du errealtate hori. Egia esan, modulu hori irekitzeak prestakuntza espezifiko eskatzen die esleituta dituzten funtzionarioei baina ez daukate prestakuntza hori. Hala ere, Euskal Administrazioak modu ez gardenean erabiltzen du, benetan existitzen dela onartu gabe, eta horrek aukera ematen dio presoak Estatuko zentroetara une bakoitzeko beharren arabera “sakabanatzen” jarraitzeko.



2.- Langile falta larria: Gaur egun, euskal espetxeetan 591 langile daude, 886 lanpostuko LPZ batean. 295 langileko defizita.

Transferentzia egin zenean, 2021eko urrian 609 langile zeuden plantillan 1387 presoentzat. Orain, hauxe da egoera: 591 funtzionario 1779rako. Hau da, 18 langile gutxiago daude, % 40 preso gehiagorekin.

Langileen osaeraren azterketa zehatzagoa egiten badugu, egoera tamalgarria da.

- Araban, transferentziak 75 langile inguruko defizita izan zuen, Arabako Zentroan bakarrik. Izan ere, Langraizko zentro zaharreko LPZ Zaballako zentro berrira eraman zen zuzenean, berria askoz ere handiagoa izanda ere. Zaballako zentroak Villenakoak (Alacant) bezalako tamaina du eta 75 pertsona gehiagoko LPZ du.
- Ezarritako LPZ eta haren dotazioak: Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez onartu zuen, ordezkaritza sindikalarrekin benetako negoziatziorik egin gabe, eta horregatik ELAk errekurritu du 2024an onartutako Lanpostuen Zerrenda (Zerbitzu Zentralak, Espetxeak eta Aukerak (Gizarteratze Elkargoa)).
- Lanpostuen zerrendan onartutako langileak:
 - Espetxeak: Araba 395, Bizkaia 179, Gipuzkoa 255 (Guztira: 829).
 - Aukerak Entea zentroetan: Araba 25, Bizkaia 13, Gipuzkoa 19 (Guztira: 57).
 - **Onartutako lanpostuen zerrenda guztira (zerbitzu zentralik gabe): 886 postu.**



- **Egungo plantilla:**

- Funtzionarioak: Araba 283, Bizkaia 121, Gipuzkoa 125 (Guztira: 529).
- Lan-kontratudunak: Araba 14, Bizkaia 8, Gipuzkoa 8 (Guztira: 30).
- Aukerak Entea zentroetan: Araba 13, Bizkaia 10, Gipuzkoa 9 (Guztira: 32)

- **Langile errealak, guztira: 591.**

- **Horren arabera, guztira 295 pertsona falta dira Aukerak eta espetxeetan zuzenean lan egiten duten langileen artean.**

- Horri disfuntzio larri batzuk gehitu behar zaizkio sistemaren barruan, ez baitaude behar beste mugatuta espetxeetako langileen eta Aukerak erakundearen lagileen eskumenak, eta horrek alferrikako lan bikoizketa edota funtzio definizio faltak eragiten ditu egin beharreko zereginei eta eginkizunei dagokienez, langileak bi erakunde publiko ezberdineko aginduetara egonik.

3.- Lan-baldintza inposatuak eta diskriminatzaileak.

ELAk kritikatu du, gaur-gaurkoz, lan baldintzen eta ordainsarien inguruan adostasunik lortu ez izana. Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez ezarri du urtebetez 2024ko abenduaren 31n iraungitako akordio baten luzapena. Akordio hori gutxiengo sindikalarekin (ACAIP-UGT) sinatu zuen bere garaian, eta lan-baldintza desberdinak sortu zituen (soldata-eskalak eta lanaldi-koak) hiru kolektiboren artean: Transferitutako langileak, behin-behineko eta azken lekualdatze-lehiaketatik estatutik etorri zirenak.



4.- Emakumeek gizonen baino gehiago sufritzen duten % 28ko behin-behinekotasuna

Euskal administrazioak transferentzia egin aurretik ez zegoen figura batekin ordezkatzeko du langile-gabezia: aldi baterako kontratazioa.

Euskal Administrazioak behin-behineko langileak kontratatzen jotzen du: Espetxeetako 529 efektiboetatik 152 behin-behineko langileak dira (48 gizon, 104 emakume); horrek esan nahi du funtzionarioen artean bitarteko langileak %28,73 direla. Behin-behineko gehienak emakumeak dira (152tik 104, %68,42), eta gainera, diskriminatuak izan dira Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorraren Lege Organikoa eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen Dekretu Legegilea errespetatzen ez dituen uniformeak janzteko orduan.

5.- Aparteko orduen abusua, 85.000 baino gehiago bi urtetan

Langile falta aparteko orduen sistema basati batekin ere ordeztzen da. Pablo Martínez Larburu Espetxe Zerbitzueta zuzendariak Legebiltzarrean emandako datuen arabera, 2023an 55.000 ordu izan ziren (828.000 €-ko kostuarekin), eta 30.000 ordu 2024an (529.000 €-ko kostuarekin). ELAK gogorarazi du Lan Ikuskaritzak berak eskatu ziola Eusko Jaurlaritzari erregimen hori kentzeko Lan Osasunaren aurka egiteagatik, sindikatu honek salaketa egin ostean.

6.- Lanpostu hutsak betetzeko porrota

Lanpostu hutsak betetzeko aukera zalantzazkoa da. Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Poltsan (C1 azpitaldea) behin-behineko langileak falta dira. Deitutako bost prestakuntza teoriko-praktikotatik, laugarrena ez zen bete (deitutako 70 pertsonatik 63 bertaratu ziren), eta bosgarrenera 11 pertsona baino ez ziren joan.